

KUTXA Enplegatuen Elkarteak	Xenda-zaletasun atala
100. zka. 5 euskal hiriburuen Zeharkaldi Handia.	11. etapa/Ibero-Lizarraga mend.2013-9-21

Adiskide mendizaleok:

Eta honekin 5 euskal hiriburuen arteko gure ibilaldiaren hirugarren zatia (Iruñea-Gasteiz) ekingo diogu. Abiapuntua Ibero herrian jarri dugu; 395 metrora dago itsas mailaren gainetik (img), eta bertan jaio zen Juan Martínez de Irujo (1981) pilotari ospetsua, baita Nicolas Ollo Bidaurreta jeneral karlista ere.

Handik gora egingo dugu pixkanaka eta eremu erosoan zehar Etxauri edo Sarbil (1.138m) inguruetara iritsiko gara, Cabezón de Etxauri izenez ere ezaguna. Mendi hau oso ezaguna da eta erraz identifikatzen da Iruñerriaren hego-mendebaldean. Etxauribarrean nagusi den faila harkaitzu garrantzitsuan, Nafarroako eskalada-eskola nagusia dago.

Behin mendi-katera iritsita, “eskura” izango dugu behatoki polit honetarako igoera, bertatik oso ikuspegi zabala baitago norabide guztietan. Handik azkar jaisten da Azanza herrira: Goñerri edo Goñibarraren mendebaldean goraune batean dago 835 m-ra (img). Leku paregabea da hamaiketakoa egin eta indarberritzeko. Gero, Urdanoz herrira iritsiko gara, eta handik gorago daukagun pagadi ederrera igoko gara, Andia mendilerroko larre handien atarira, ohiko tapiz berdea igaroz iritsiko garelarik bertara.

Behin gora iritsita, desnibel handirik gabe egingo dugu oso atsegina den azken zati hau, eta Lizarragako mendateraino iritsiko gara, bertan amaitzeko denetik duen zeharkaldi hau.

Animo, mendizaleok, natura zain dugu eta!!!

Ibilbidea:				Ibero-Lizarraga				mendatea			
Beharrezko denbora				6,00							
Goranzko desnibel metatua				1.119 metro							
Beheranzko desnibel metatua				519 metro							
Zeharretara egin beharreko distantzia				26.000 m							
	Ingurunea	1		Orientazioa	1		Joan-etorria	1		Esfortza	4

Irteera-lekua	Autobusen geltokia/Amara Plaza hotela
Aurkezteko ordua	07:10
Irteera-ordua:	07:15
Bazkaria	Lizarragako Benta
Prezioa	33 euro

Izena emateko azken eguna: 2013-09-18ko 12:00etan

Oharra: Eguraldiaren iragarpena txarra izango balitz larunbaterako, igandean egingo litzateke ibilaldia.

Izen-emateak posta-helbide hauetan egin behar dira: alahuerta@kutxabank.es / jlurretabizkaia@kutxabank.es edo telefono hauetan: 943-00.14.69 (Alberto Lahuerta-Baterakuntza eta Kostuak-969)/943-00.12.36 (Lorenzo Urretabizkaia-Gipuzkoa Sarea-5700). Izena ematen duzuen guztioi, txangoari buruzko agiri edo dokumentazioa emango zaizue. Bazkariaren ondoren, ohiko opari-zozketa egingo da parte-hartzaile guztien artean.

DAD/Senderismo/Kutxa/Alberto Lahuerta/Lorenzo Urretabizkaia